

## SCHMALLEMBERG GAIXOTASUNA

Schmallenberg gaixotasuna birus-infekzio bat da, eta 2011ko udan diagnostikatu zen lehen aldiz, Alemanian. Hain zuzen, Schmallenberg hirikoak ziren gaixotasuna detektatu zitzairen lehen animaliak, eta horrexegatik du izen hori.

Animalia hausnarkariengan (behiak, ardiak, ahuntzak, bisonteak eta basoko hausnarkariak) bakarrik du eragina, eta, funtsean, eltxoen edo plazentaren bidez transmititzen da.

Artikulu honetan, gaixotasunaren kronologia eta egungo egoera aztertuko ditugu, bai eta gaixotasunaren inguruan dauden azken ezagupen zientifikoak ere.

### GAIXOTSAUNAREN AGERPENA ETA KRONOLOGIA

2011ko udan, Alemaniako Ipar Renania-Westfalia estatuko albaitaritzaz-zerbitzuek hainbat kasu ikertu zituzten, hasiera batean pentsatuz Mihi Urdina birusaren aldagai ezezagun bat zela.



Laborategiko zenbait metodoren bidez, alde batera utzi zuten Mihi Urdina birusa eta beste gaixotasun batzuk izateko aukera, eta, horren ostean, metodo metagenomikoetara jo zuten, agente patogenoen material genetikorik ote zegoen

zehazte aldera. Analisi horiek agerian utzi zuten birusen sekuentzia genomiko batzuk zeudela, eta horiek adierazten zuten ordura arte identifikatu gabeko birus berri bat zegoela. Taxonomikoki Orthobunyavirus generoan sartu zuten (Bunyaviridae familia). Birus berriari Schmallenberg birusa izena jarri zioten, hiri hartakoak baitziren birusak eragindako lehen animaliak.


Europako Batzordeak [Alemanian birusa detektatzeari buruzko EE txostena](#) argitaratu zuen.

EFSAk (Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritzaz) [2013ko maiatzean "Schmallenberg birusaren datu epidemiologikoen azterketa" txostenean](#) argitaratutako datuen arabera, 2011n kasuak agertu zirenetik data horretara arte, hemeretzi estatu kidek jakinarazi zituzten gaixotasunaren fokuak.

2011ko irailetik 2013ko apirilera arte

**Europarazko** ustiategietan egiaztatutako kasuak, guztira, 8.000 baino gehiago izan dira.

Mapa honetan kasuen geografia- eta denbora-banaketa ikus daiteke, 2011ko irailetik 2013ko apirilera.



EFSA 2013 Technical report on "Schmallenberg" virus: analysis of the epidemiological data (May 2013).

### Lehenengo fokua Espainian

Martxoaren 13an jakinarazi zen Espainian Schmallenberg birusaren lehen kasua eta bakarra, Hijonosa del Duque eskualdeko **(Kordoba) ardi- eta ahuntz-ustiategi batean**. Bertan, ardi baten fetuaren malformazio-kasu bat hauteman zen.

Gaixotasuna izango zelakoan, gaixotasunaren aurka indarrean zegoen kontingentzia-planean ezarritako neurriak ezarri zituzten. Honako hauek ziren neurri horien ardatzak: ikerketa epidemiologikoa, ustiategiko ardiak eta ahuntzak erroldatzea eta ustiategira bisita egitea, laginak hartzeko.

**Gertaerak ez du garrantzi handirik izan.**

### GAUR EGUNGO EGOERA

Gaixotasunaren berri eman zenetik, **Europako herrialde gehienek jakinarazi dituzte gaixotasunaren kasuak.**

Epizootiaren hasieran, agente ezezagun bat zenez sortutako ziurtasunik eza zela eta, animalien osasunean eskudunak ziren instituzio nagusiek (Animalien Osasunerako Nazioarteko Erakundea, OIE eta Europako Batzordea, EB), bai eta hainbat herrialdeetako administrazioek ere, zenbait neurri ezarri zituzten Europako herrialdeentzat, besteak beste, fokuak zaintzea eta derrigor adieraztea.

**Gaur egun, ez da derrigorrezkoa gaixotasunaren fokua adieraztea (2012ko maiatzetik), herrialde batean lehen aldiz sortu berri den gaixotasun gisa hautematen den kasuetan izan ezik.**

Alabaina, herrialde askok adierazi egiten dituzte OIEren txostenetan.

Gaixotasunaren ezaugarri epidemiologikoak eta haren transmisio-bidea direla eta, **ez dago justifikatuta ez animaliak hiltzea, ez gaixotasunak eragindako ustiategitik edo ustiategietatik datozen animalien mugimenduak mugatzea.**

Orain, **gaixotasunari jarraipena egiten eta horren inguruan ikertzen ari dira**, batez ere. EFSAk, berriz, estatu kideei gaixotasunaren inguruko datuak bidaltzen

jarraitzeko eskatu die, datu horiek bildu eta gaixotasunaren inguruko ezagutza eguneratzeko.

[Europako Batzordeak 2012. urtean argitaratuko adierazpenetako batean](#), zehazki, nabarmentzen zen garrantzitsua zela gaixotasunari buruzko ikerketak egiten jarraitzea eta lan horiek finantzatzea.

Ondorio gisa, hainbat ikerketa-lerro abiarazi ziren, eta horien emaitza batzuk ezagutzen hasi gara dagoeneko. Hurrengo atalean adierazten dira.

#### GAIXOTASUNARI BURUZKO AZKEN EZAGUTZAK

Hona hemen ereduako bi erakundek, OIEk eta EFSAk, argitaratutako datuak.

OIEk gaixotasunaren Fitxa Teknikoa jaso du, 2013. urteko azaroan eguneratutako informazioarekin osatutakoa, adibidez:

- Ikerketa serologiko eta epidemiologikoak erakutsi dute **ez dela birus zoonotiko bat**.
- Honako hauek dira orain arte aurkitutako **ostalariak: behiak, ardiak, ahuntzak, bisonteak, orkatzak, txakurrak** (PCR positiboko txakur bakarra); horiek guztiak PCRaren bidez edo birusa isolatuta egiaztatu dira. Eta **serologia bidez bakarrik egiaztatutakoak: oreinak, alpakak, mufloiak, basurdeak**.

- Bektore bidezko transmisioari dagokionez, **Culicoides generoko eltxoen hainbat espezetan detektatu da Schmallebergen birusaren genoma**. Gaur-gaurkoz **ez dago eltxoen balizko funtzioaren frogarik**.

- **Behien esperman detektatu da Schmallebergen birusa**, baina oraindik **ez da jakina intseminazio bidez transmiti daitekeen ala ez**.

- Ikertu den arren, **ez da frogatu birusa animaliatik animaliarara zuzenean transmiti daitekeen**.

EFSAk 2012. urteko otsailetik hogeitxosten baino gehiago argitaratu ditu birus honen inguruan. Hona hemen erakundeak 2014ko maiatzean argitaratutako azken txosteneko zenbait datu. Txostenaren izena ["EFSA provides an overview of the latest scientific research"](#) da, eta, hain zuzen ere, azken ikerketa zientifikoek bilduma bat da.

- ✓ Birusak oso kasu gutxitan sortzen ditu malformazioak dituzten txahalak.
- ✓ Gaixotasuna **transmititzen duten Culicoides** eltxoen espezieak oso zabalduta daude eta gutxienez *C. obsoletus* eta *C. scoticus chiopterus* espezieak daude horien artean.

- ✓ **Ez dago frogatuta** birusak klinikoki eragindako **jaioberriak bektoreentzat birus-iturri bideragarria direnik.**
- ✓ **Behien immunitate-iraupenari** buruzko datu gutxiak erakusten dute birusak **gutxienez urtebete** irauten duela infekzio naturalaren ondoren.

## GAIXOTASUNAREN INGURUKO AIPAMEN LABURRA

### Sintomak

Anomaliak jaiotza inguruko denboraldian: **erditze distozikoak, abortuak, hilda jaiotzea eta malformazioak jaioberrietan, nabarmenagoak ardietan behietan baino.**

**Sukarra, anorexia, beherakoa, gorputz-egoera galtzea, ekoizpena gutxitzea** (% 50era ere irits daiteke esne-behien kasuetan). Sintoma horiek euren kasa konpondu ohi dira bi edo hiru egunen buruan.

### Transmisioa

Gaixotasuna, hasiera batean, **intsektu-bektoreen bitartez** transmititzen zaie animaliei, eta geroago, bertikalki, **in utero**.

### Diagnostikoa

**KLINIKOA:** Helduen sintomak sukarra, esne-ekoizpena jaistea, beherakoa eta abortuak dira, eta fetuenak

artrogriposia eta sindrome hidranentzefalikoa.

**DIFERENTZIALA:** Helduengan sukar altua, beherakoa, esne-ekoizpena jaistea eta abortua eragiten duten gaixotasunak, eta fetuen malformazio kasuetan Mihi Urdina, Pestibirusa, faktore genetikoak eta substantzia toxikoak.

**LABORATEGIAK** laginak hoztuta edo izoztuta garraiatu behar dira eta EDTA eta seruma (2ml) duen odola izan behar da, bizirik dauden animaliena. Hilda jaiotzearen animalien kasuan: bizirik jaiotze berri direnen garun-ehuna, likido amniotikoa eta plazenta, antigorputzak detektatzeko. Histopatologiarentzat: nerbio-sistema zentrala, bizkarrezur-muina barne.

### Prebentzioa eta kontrola

**Ez dago** Schmalleberg birusarentzako berariazko **tratamendurik.**

Aktibatu gabeko **txerto batzuk badaude herrialde batzuetan.**

## KONKLUSIOAK

- ⇒ Gaur egun, **ez da derrigorrezkoa gaixotasunaren fokuak adieraztea** (2012ko maiatzetik). sortu berri den gaixotasun gisa hautematen den kasuetan izan ezik.
- ⇒ Gaur egun **egoera lasaitasunekoa** da gaixotasun honi dagokionez.
- ⇒ Orain arreta **gaixotasunaren gainean ikertzen** jarraitzean zentratzen da.
- ⇒ **Gehiago ezagutzeak lagundu egingo du** berau kontrolatzen, behar izanez gero, eta **antzeko gaixotasunak ezagutzen**.

Schmallenberg gaixotasunari  
buruzko informazio gehiago:

[Schmallenberg gaixotasuna - European Batzordea](#)

